

IZOZTEKO ADINA

Harkaitz Cano




Irudiak
Koldo Landaluze


GARA naiz:

Hiztegitarra


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abaila abiada	Zomorro saldo bat pitzadura zabaldu berri batetik bezala atera ziren furgoitik beltzezko gizonak, inurriak edo kakalardoak bezala, abaila bizian...	9
abaildu erori, akitu, jota geratu	Nire umore detektagailuak sadness arrastoak atzeman zizkidan eta endorfinak automatikoki ziztatu, erabat abaildu ez nendin.	19
ablazio klitoria erauzte	Krimena kontrolatik at: bortxaketak, esklabotza, prostituzio derrigortua, ablazioak .	2
adulteratua aizundua	Stuff adulteratua bazen, zer? Merezi zuen nire burua at risk jartzea?	21
ahala heinean	Orri bikoitzeko atek, kristal gotortua zutenak, sartu ahala irekitzen zitzaizkien, horretarako bortxa minimorik ere erabili beharrik gabe...	9
aintzakotzat kontuan hartu	...kultur sailburua borrokan ari zen denok buruan ditugun kantari horiek zerrendan aintzakotzat har zitzen.	13
aitatu aipatu	Euskal sukaldaritza berria aitatu zuten gero, eta plater hegalarien inbasioaren koherentzia ironikoa edo ironia koherentea	7
aitzakia estakurua	Segurtasunaren aitzakia salatu eta askatasunaren aldarria egiten da Rio, Milan, Kairo eta Pekinen.	1
akigarri neketsua, nekagarria	Nekagarria baita beti oraina, baina are akigarriagoak iragana eta etorkizuna.	21
akuri laborategiko saguak-eta (kobaia)	Oihuka dabil nora ezean jendetza, akuri izutuak legez. Negarrez eta histeriak jota baobiltar jator arruntak	3
aldiri hiriburu ondoa	Barbara Berlusconik, Italiako lehen ministroak, Milango aldirietan eskala bereko Veneziako hiriaren erreplika bat egingo duela agintzen du.	2
amore eman errenditu, porrota onartu	...uko egiten zioten konpresioari, nahiz eta enpirikoki jakin bi aldeetatik bakar batek ere ez zuela eztabaidan amore emango .	10
apeta kapritxoa, gutizia	Zeure gogo eta apetei ongien egokituko zaien unibertsoa hautatzen saiatuko gara.	17
apurka-apurka poliki-poliki, ezarian	Ontziak Euskalduna laudatoriumaren gainean agertu ziren lehenbizi eta Guggenheimera hurbildu gero, apurka-apurka .	7
arasa armairua	Eskularru beltzak ikusi ditu eta fusilaren punta leihoko arasan bermatuta.	3
arbuigarri mespretxagarria	Bilioika doleuro horiek ordaintzeko biztanleriak beharko zituen urteak arbuigarriak irudituko zitzaizkien zenbait pentsalariri.	14
arpilatu harrapatutakoa eraman, ostu	Aspaldian arpilatu eta saldu zuten txatartegietara errumanoideek balio minimo bat izan zezakeen ia guztia.	15
atezuan tentsioan, estu eta larri	—My inner thoughts irakurri dizkidazu, egia esan... —irribarre egin zuen lehen aldiz Ismaelek, baina atezuan jarraitzen zuen.	20
atzeman harrapatu	Debekatuta dago adin txikikoen KAIa. Halakorik egingo lukeen laborategi edo fakultatiborik atzemango balitz, garun-dantza elektriko bat ezarriko zaio...	12
atzenduta ahaztuta, ahantzita	<i>Useless</i> bihurtu ziren eta ez ziren haien ofizioa atzenduta geratu zela ulertzeko gai izan.	19
aurrerantzean ordutik aurrera edo gora	Banku agintaritzaren iradokizunez, moneta batasuna eta dibisa berriak: euroak eta dolarrak desagertu eta doleuroak erabiliko dira aurrerantzean .	2
bahitu indarrez atzeman eta eraman	...hainbat hiritan gordailatutako memodosi bahituak doan banatuko ditugu euren herriaren benetako historia berreskuratu nahi dutenen artean.	11
barik beharrean, ordez	Bakarren batek, junkie aurpegiarekin barik , desio eta irrikaz so egiten ziola iruditu zitzaion.	18
basa basatia	Goi Sylesiako hiriburuan ere bada bizitarik Eremu Babestutik at. Mundu basan nago orain	21
berezo klientea	Bizirik eta erotu gabe. Ahalik eta luzaroen. Hori baita negoziari eusteko modu bakarra. Gainera, Nora Stewart da oraingoan bere bezeroa .	8




bermatu apoiatu	Eskularru beltzak ikusi ditu eta fusilaren punta leihoko arasan bermatuta .	3
betiereko eterno	... betiereko bizitzagatik ordaintzen ziren prezio neurrigabeak salatuko zituzten –«eternitatea ez zen hainbesterako», adieraziko zuten analista kritikoenek–.	14
bokazio zerbait izatera heltzeko gogo	...Metropolitan bezalako museoetan ikus daitezke garai hartako argazkiak, multiplikatze bako bako, kopia bako batzuetan bizirauteko bokazioa zutenak...	5
borra maza, porra	Eremu Babestutik atera orduko sentitu nuen kolpea in my head, you bastard, let me alone. Borraz jota bezala, garun-dantza elektriko bat.	16
bortxaketa sexu eraso bortitza	Krimena kontroletik at: bortxaketak , esklabotza, prostituzio derrigortua, ablazioak.	2
burialera ehorzketara, hobiratzer	Hiletara ere ezingo nuen joan. Burialera ere ez. Haserre nengoen <i>with myself</i> .	19
deitoratu txartzat hartu	Deitoratu egin zuten orduan self-komentaristek bere garaian euskal armadari hain modu arinean uko egin izana...	7
demasa gehiegizkoa	...geltoki ganean paratu ziren aparailu zilarkara haiek. Dozenaka ziren eta argi foku demasekin itsutzen zuten geltokiko titaniozko estalkia.	7
derrigortu behartua	Krimena kontroletik at: bortxaketak, esklabotza, prostituzio derrigortua , ablazioak.	2
deskalabru porrot desordenatua	Bizitzaren zikloa ziklo delako errespetatu behar da (...) Arazo eta inguruabar asko ez dira aintzakotzat hartu, deskalabru bat izango da, zentzu guztietan...	12
desterru erbesteratze zigorra	Halakorik egingo lukeen laborategi edo fakultatiborik atzemango balitz, garundantza elektriko bat ezarriko zaio, edo hiru urteko desterru zigorra...	12
doitze aldera kalibratzeko, zehaztearren	...armaren pantaila digitalean gaurkotu ditu airearen presioari dagozkion datuak, egon daitekeen desfase milimetrikoa doitze aldera .	6
doktrina irizpide multzoa	...atentatuaren ondorioz, automonitorizazioaren kontrako protestak lausotzen joan dira mundu osoan, self-control doktrina prebentiboa nagusitu arte.	1
egarbera egarria sentitzea	Didi haren gorputzari begira, izara apur bat apartatu ondoren, begirada egarberaz ...	18
egoitza zentroa	...eutanasia zerbitzua eskaintzen zuten egoitza publiko zein pribatuek...	13
erauzpen indarrez ateratzea	Ez naiz memoemailea eta ez dut inoiz nirerik saldu... Erauzpen partzialak only... Ezin duzue nire oroitzapen sendorik eduki.	16
ergometro arraun egiteko makina	Didi Larrea pisu astunak altxatzen gimnasioan. Didi Larrea ergometroaren proba egiten.	18
erkaketa konparazio, alderaketa	Mila esker zure pazientziagatik. Password zuzena. Irisaren erkaketa positiboa	17
errezo otoitza	Gero alfonbra hartu du Abdul Gerrikagoitiak eta belauniko ipini da, Mekara begira, bere eguneroko bigarren errezorako .	7
erruz asko	Lanorduak erruz urritzen dira eskualde guztietan. Bizitza kalitatea gora.	
eskergarri eskertzea merezi duena	Zuria ez beste edozein kolore da elurpeko gordeleku hartan begientzat eskergarri .	22
estreinako lehenengoa	goizegi zen galdetzen hasteko. Estreinako hitzordua zen, gainera. The very first.	4
etekin irabazia	Oroitzapenek sortzen dituzten etekinak arautu eta pirateriari aurre egiteko sortu da Oroitzapenen Egile Eskubideen kudeaketarako erakunde berri bat...	11
euri lanbro euri fin fina	Euri lanbroa dagoenez, giroa hezemetroarekin neurtu ondoren, armaren pantaila digitalean gaurkotu ditu airearen presioari dagozkion datuak...	6
eutanasia lagundutako suizidioa	Eutanasiaren legalizazioa Europa osoan, baita gaixorik ez dauden kasuan ere.	1




flirt ligatu, mutiletan/neskatan aritu	Flirt estrategiatzat hartu zuen, beraz, emakumearena. Ziur samar zegoen ez zutela elkar ezagutzen.	20
fotovoltaiko argitiki energia lortzea	Energia fotovoltaikoaren gordailua errazten duen grafeno deribatuko polimeroa aurkitzen da.	1
galarazi debekatu, eragotzi, oztopatu	Euskal Protektoratuak neurriak hartu beharko lituzke haiekin harreman diplomatikoak eten eta bertara bidaiatzea galarazteko?	12
ghetto arrazta baten zonalde marginala	...nola edo hala eusten dio, herri borondateari esker. Tiroles-euskaldunen ghetto izendatu nahi izan du batek baino gehiagok...	4
gizaseme gizonezkoa, pertsona	— Ez, barkatu... should I? — tentsio puntu bat nabaritzen hasi zen gizasemea .	20
gotortu blindatu, indarrez ezarri	Etxetik ez ateratzeko agindua eta hiri-harresiez bestaldeko eremuaren kontrako babes-geruzaren gotortzea sartu ziren indarrean.	7
hanka egin ospa egin, aldendu	Arnak dauden lekuan laga eta hanka egingo du handik gero	5
hartxintzar harri txikitxoaren multzoa (<i>grijo</i>)	Oinez jarraitu dut tarte batez, hartxintzarrez osatutako bidearen alde bietan dauden zuziei esker putzuak saihestuz.	15
helarazi transmititu	Mustafa Bergara izan da Abdul berriak helaraztearen arduraduna.	11
hipocratico medikuen juramentua	Baita bizitza zaintzeko intentoa ere. Zin-egite hipocraticoan jasotzen da. On est tout là... Hau zin-egite hipokratiko baten extensión da.	5
hipster subkultura mota	Betaurrekoak zeramatzan soinean, horretan nahikoa hipsterra zen, ez zeukan, gehienok bezala, oronet operativea kontaktu lenteetan ezarria.	4
hirusta hiru hostoko belarra (<i>trébol</i>)	Sablea eta muskerra , berde eta zuri, lau hostoko hirustaren gainean.	11
histeriak jota izututa, izu-laborriak hartuta	Oihuka dabil nora ezean jendetza, akuri izutuak legez. Negarrez eta histeriak jota baobiltar jator arruntak	3
hitzordu zita, adostutako elkartzeko unea	goizegi zen galdetzen hasteko. Estreinako hitzordua zen, gainera. The very first.	4
holograma hiru dimentsioko irudia, laser bidez	Guggenheimeko sutunpa-tren geltokiaren berrinaugurazioa holograma bidez egitea gomendatzen zioten aholkulariei muzin eginez, bertan izango da gaur...	5
ika-mika kalapita, sesioa, liskarra	Alderdi abertzaleen arteko ika-mikak hizkuntz eredua tarteko. Euskara batua baztertu eta bilbatua hizkuntza ofizial izendatzen da hegoaldean.	2
inguruabar zinkunstantzia	Bizitzaren zikloa ziklo delako errespetatu behar da (...) Arazo eta inguruabar asko ez dira aintzakotzat hartu, deskalabru bat izango da, zentzu guztietan...	12
inkunable XV. mendeko liburu inprimatua	Betaurreko biribilak. Ileak zuri, bizarra luze, muturra inkunable batean murgilduta.	22
iradokizun sugerentzia	Banku agintaritzaren iradokizunez , moneta batasuna eta dibisa berriak: euroak eta dolarrak desagertu eta doleuroak erabiliko dira aurrerantzean.	2
iruditu begitandu	Bakarren batek, junkie aurpegiarekin barik, desio eta irrikaz so egiten ziola iruditu zitzaion.	18
isurkin isurtako likidoa	Liluratu egiten ditu oraindik isurkinak ezpainetan egiten dien laztanak. Ez dira ohitzen.	22
izerdi patsetan izerditan blai	Izerdi patsetan esnatu da memodosiaren eraginetik. Ondoan du Jazz Malanda.	3
jakina noski, alajaina	Sentitzen du nolabaiteko erantzukizuna bere bezeroekiko. Jakina sentitzen duela. Ezkututzen saiatzen da, baina ez da munstro bat.	8
jerk (jerk off) kanpaia jo, masturbatu (gizonak)	Gonna have to jerk myself tonight, nik nire artean.	4
junkie drogazalea	Bakarren batek, junkie aurpegiarekin barik, desio eta irrikaz so egiten ziola iruditu zitzaion.	18



kakalardo intsektu hegalaria adarduna	...atera ziren furgoitik beltzeko gizonak, inurriak edo kakalardoak bezala, abaila bizian, inori zenbat ziren zenbatzeko astirik eman gabe...	9
kakitizat kaka zaharra!	Non irakurri ote zuen hura? (...) Kakitizat , orain ere ordaintzea tokatuko zitzaion.	3
kalakan egin berriketan, hitz aspertuan aritu	Ez naiz hain gaztea ere. Ea bada, egin dugu kalakan nahikoa eta sobera: memodosi hori.	8
kardamomo belar tropikala	Minibaporizazioa eremutik pasa zuen kamareroak sintesi pastillatxoa, lurrin egoera har zezan. Gero kardamomo apur bat bota zion gainetik.	4
kasta gizarte estatusa	Halakorik baimentzera, kirolari kasta pribilegiatu bat sortuko zatekeen.	13
kementsu ausarta, bipila	Zenbaiten ustez, Fidel gaztea, Sierra Madrekoa edo Cochinos Badiakoa zen berpiztu beharrekoa. Kementsuena .	14
koketo txukun erakargarria	Ondoan du emaztea, kapela koketo bat jantzita –pamela bat–; jendea agurtzen ari da hura ere.	3
konkordun lepo oker handitua	Zakurrak izateko handiegiak diren izaki konkordunak deep in the darkness...	15
kudeaketa gestioa	Oroitzapenek sortzen dituzten etekinak arautu eta pirateriari aurre egiteko sortu da Oroitzapenen Egile Eskubideen kudeaketarako erakunde berri bat...	11
kutsu tankera, arrastoa	Plater hegalaria esan zuen norbaitek, kutsu zaharkitua zuen esamolde bat aipatzearren.	7
lagatu utzi	Armak dauden lekuan laga eta hanka egingo du handik gero	5
laparoskopia kirurjiako teknika mota	XX. mendeko zirujia konbentzionala eta laparoskopia errobotikoa (vintage)...	17
litxarrerria txibizkeria, gozokiak-eta	Gero kardamomo apur bat bota zion gainetik. Modan zegoen litxarrerriatxo hura. Love that thing, aitortzen dut.	4
lizunkeria likiskeria, sexu jarduera	...portuan marinela agertu zaizkit buruan, out of the blue, elkarrekin lizunkeriatan . Nondik datoz memory horiek?	19
lozor lo sakona	Ameuropan guztia esnarazi nahi du bere lozorrotik .	11
martxan jarri abiarazi	Euskal Protektoratuak (...) Defentsa Protokoloa jarri zuen martxan berehala.	7
mataza korapiloa, artile multzo biribila	—Goiz da yet... Lanean ari gara on that... Matazak hari solte gehiegi dauzka, momentuz (DMC & Anchor, pantone zabaleko hariak: egin zure jertsea!)	9
mixture nahastea	Ingelesaren eta euskararen arteko mixturea derrigorrezko kalte bezala onartu behar izan genuen...	10
mozkin irabazia, etekina	...kreditu bigunak eman ziren, interes oso baxuan. Dena biderkatzen zen, dirua ordaintzeko epea, lan urteak, bankuaren mozkinak ...	13
munstro bihozgabea, krudela	Sentitzen du nolabaiteko erantzukizuna bere bezeroekiko. Jakina sentitzen duela. Ezkututzen saiatzen da, baina ez da munstro bat.	8
musker berdea	Sablea eta muskerra , berde eta zuri, lau hostoko hirustaren gainean.	11
muturra murgilduta konzentratuta, sartu-sartua	Betaurreko biribilak. Ileak zuri, bizarra luze, muturra inkunable batean murgilduta .	22
muzin egin ez egin kasu, arbiuatu	Guggenheimeko sutunpa-tren geltokiaren berrinaugurazioa holograma bidez egitea gomendatzen zioten aholkulariei muzin eginez , bertan izango da gaur...	5
oparo ugari	...sasoi betean izozteak sistemaren mesedetan fruitu oparoak emango zituen lan errendimendu mugagabea eragingo zuelakoan...	13
oroitzapen gomuta, gogorapena	Dena oso azkar gertatzen da memodosietan, inoren oroitzapen erabiliak kontsumitzen ari zarenean.	3



partzial zatikakoa	Ez naiz memoemailea eta ez dut inoiz nirerik saldu... Erauzpen partzialak only... Ezin duzue nire oroitzapen sendorik eduki.	16
pazientzia eroapena	Mila esker zure pazientziagatik . Password zuzena. Irisaren erkaketa positiboa	17
pitzadura arrakala, arrairadura	Zomorro saldo bat pitzadura zabaldu berri batetik bezala atera ziren furgoitik beltzeko gizonak, inurriak edo kakalardoak bezala, abaila bizian...	9
planto egin egonkortu, tinkatu	Izozte Prozesua deitzen zaio adin jakin batean planto egin eta gehiago ez zahartzea ahalmentzen duen teknikari.	2
prebentibo zerbait ekiditeko neurria	...atentatuaren ondorioz, automonitorizazioaren kontrako protestak lausotzen joan dira mundu osoan, self-control doktrina prebentiboa nagusitu arte.	1
psikosi buru gaixotasuna, paranoia	Segurtasunaren psikosia ikaragarria izan arren, ez da atentaturik gertatu Ameuropako lurretan.	2
reseteatu itzali eta berriz piztu	Tiro egin ondoren, bere burua automatikoki reseteatuko du, memounitatea zerora ipiniz, atxilotuko balute bere ordaintzaileen arrastorik gera ez dadin...	5
retro lehenera joana	Umea arraro dago, erabat retro dabil aspaldion. Partxisera jolastu nahi du...	17
rusty (ingeleza) herdoilduta, ugertuta	Orgasmoteka hura erabat rusty zegoen.	4
sable harea, legarra	Sablea eta muskerra , berde eta zuri, lau hostoko hirustaren gainean.	11
salatu denuntziatu	...betiereko bizitzagatik ordaintzen ziren prezio neurrigabeak salatuko zituzten –«eternitatea ez zen hainbesterako», adieraziko zuten analista kritikoenek–.	14
samar nahiko	Flirt estrategiatzat hartu zuen, beraz, emakumearena. Ziur samar zegoen ez zutela elkar ezagutzen.	20
sator espioi infiltratua	—Ez dira edozer gauza: barrutik iritsi zaizkit, Ertzaintzako elite tropa perutarretan ditudan satorrengandik ...	18
sen instintua, intuizioa	Sintesiak ordaindu eta handik lehenbailehen desagertzea onena. Hala agintzen zidan senak .	4
seta izan tematuta egon	Seta zuten gero memoterroristek gogoratu behar harekin. What a silly thing it was.	16
setatu tematu, hisiatu	—Ez zara nitaz gogoratzen? – setatu zen Nora Stewart.	20
sintetizatu substantzia eratorria	—Tira, onartu beharra dago Bordeaux-hautsak eta xanpain-lurrinak onak egiten dituztela frantsesek. Sintetizatu bat ekarri dizut, a little present...	10
so egin begitu, behatu	Bakarren batek, junkie aurpegiarekin barik, desio eta irrikaz so egiten ziola iruditu zitzaion.	18
soinean eraman aldean edo jarrita eraman	Betaurrekoak zeramatzan soinean , horretan nahikoa hipsterra zen, ez zeukan, gehienok bezala, oronet operativea kontaktu lenteetan ezarria.	4
sumindura haserrea	Paradisu fiskaletako diruaren arrastoa segitu ezinik, gorantz doa biztanleriaren sumindura .	1
sutunpa-trena bala-trena, azkar-azkarra	—Ez, hemen dena berandu heltzen da: zaborren kudeaketa, halamoduzko autonomia, sutunpa-trena ...	15
txantxatan bromatan	Baina biztanleetako zenbait berehala jabetu ziren kontua ez zela batere txantxetan hartzekoa izango.	7
txatartegi txarrarra (burdin gaia) biltegia	Aspaldian arpilatu eta saldu zuten txatartegietara errumanoideek balio minimo bat izan zezakeen ia guztia.	15
xuxurlatu ahapeka esan, isilean	«Fuck them all», xuxurlatu du bere kolkorako. «Eta gainera, astebete baino ez da falta Izozte Aktaren erreferendumerako...».	11
zentzatu formaldu	...presioa egin nahiko zuten, zentzatu egin nahiko ninduten euren kausaren alde.	16



zilarkara zilar kolore matalikoa	Guggenheimeko sutunpa-tren geltoki ganean paratu ziren aparailu zilarkara haiek.	7
zokoratuz baztertuz	Agian bietako bat (...) gorde nahi izan zuen jabeak, baina nahi gabe gainjarri zitzaion bigarrena, hain lazgarria, lehenbizikoa zokoratuz .	8
zori zortea	Dadoek emandako zenbakiaren arabera irakurtzen du inkunable bat edo beste, hautatzen (...) orrialdea. Zoriaren menpe lagatzen du jakinduria.	22
zut zutik, tente	...atera ziren furgoitik beltzeko gizonak (...) zut kaskoetako antenak, ispilu-estalkidun biserapean ezkatatuta euren aurpegiak.	9
zuzi lastargia, tortxa	Oinez jarraitu dut tarte batez, hartxintzarrez osatutako bidearen alde bietan dauden zuziei esker putzuak saihestuz.	15